**UDALBATZAK 2008KO UZTAILAREN 18AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila zortziko uztailaren hemezortziko 08:30 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Karlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Era berean, bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**1. Udalbatzaren 2008ko maiatzaren 30eko ohiko osoko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 18 DE JULIO DE 2008**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:30 horas del día dieciocho de julio del año dos mil ocho, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Karlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Jon Ugutz ORMAETXEA BERROETA
- José Manuel FERRADAS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRÍGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Asimismo asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta de la Sesión Ordinaria de fecha 30 de mayo de 2008.**

Idazkariak 2008ko maiatzaren 30eko ohiko osoko bilkurari dagokion akta irakurri ostean, inolako oharrik egin gabe, aho batez, onartu dute.

Leída por el Secretario el Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 30 de mayo de 2008, se aprueba sin observación alguna.

**2. Posta, erabaki ofizialak, epaitegien epaiak eta lehendakaritzako kudeaketak.**

**2. Correspondencia, disposiciones oficiales, sentencias de los tribunales y gestiones de la Presidencia.**

Ez dago berri eman beharreko gairik.

No hay asuntos de los que tratar.

**3. Alkateak emaniko ebazpenen (824 zk.tik 919 zk.ra), zinegotzi ordezkariek (1302 zk.tik 1441 zk.ra) eta tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri ematea.**

**3. Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. del 824 al 919 ambos icluidos), de Concejales Delegados (nºs del 1302 al 1441, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (824 zk.tik 919 zk.ra), zinegotzi ordezkariek (1302 zk.tik 1441 zk.ra) eta tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri eman du.

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs del 824 al 919 ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs del 1302 al 1441, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones.

* Murua jaunak (Orereetako EAE-ANV) adierazi duenez, eurek jaso dituzten ebazpenen artean, kreditu-aldaketari buruzko bat dago, eta aldaketa horiek zertan datzan jakitea gustatuko litzaieke, izan ere, ebazpenean diru-kopuru orokorra jasotzen da, baina eurek ez dakite zertan ematen den aldaketa osoa.

* El Sr. Murua (Orereetako EAE-ANV) manifiesta en euskara que entre las resoluciones que han recibido está la relativa a la modificación de créditos, y les gustaría saber en qué consisten dichas modificaciones, puesto que en la resolución se refleja el montante total, pero ellos desconocen en base a qué conceptos se da la misma.

* Merino alkate jaunak

* El Alcalde Sr. Merino

(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez, memoriaz eta deskuidatzeko arriskuarekin hitz egiten badu ere, 50.000.- euroko aldaketaz hitz egiten dela. Kasu honetan ondarean dagoen partida bat igotzeko asmoa dute. Zehazki esateko, orokorrean etxabeetan dituzten udal lokaletan partaide dira eta diru hori lokal horietan gertatzen diren komunitate-gastuei (teilatu eta fatxada konponketak...) aurre egiteko da. Izan ere, ikusi dute hasiera batean izendaturiko partida ez dela nahikoa eta 50.000.- eurotan handitu behar izan dute, eta gastu hori izango ez duela uste duten beste partida batetik atera dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**4. Proposamena: Udalaren Araudia Organikoa aldatzea. Hasierako onespena.**

Orereetako EAE-ANV zinegotzi-taldeak 2008ko maiatzaren 23an erreklamazio bat egin zuen, bertan zera eskatzen zuelarik:

1) Informazio batzordeetako partaideen boto haztatuz erdietsitako baliokidetasuna **ezabatzea** bilera egin ahal izateko, Udal Araudi Organikoaren 34. artikuluan jasota dagoena.

(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, hablando de memoria y a riesgo de equivocarse, supone que se habla de una modificación de 50.000,- €. En este caso se trata de incrementar una partida que está en patrimonio. En concreto es la que les hace copartícipes de aquellos locales municipales que están generalmente en bajos, etc. y corresponde a los posibles gastos de comunidad que se pueden dar en los mismos, como arreglos de tejado, fachada o lo que corresponda. Se ha visto que la partida que tenía asignada en un principio no era suficiente y ha habido que incrementarla en esos 50.000,- euros, que han salido de otra partida que se preveía no iba a tener ese gasto.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno queda enterado.

**4. Propuesta: modificación del Reglamento Orgánico Municipal. Aprobación inicial.**

Examinada la reclamación formulada por los concejales del grupo ORERETAKO EAE/ANV de fecha 23 de mayo de 2008 reclamando lo siguiente:

1) Eliminar la equivalencia de miembros de comisión informativa con votos ponderados a efectos de válida constitución para celebración de reunión contenida en el artículo 34 del Reglamento Orgánico

Municipal.

2) Orobat, **ezabatzea** 43. artikuluan jasota dagoen boto haztatuaren izaera irizpenak eta txostenak eman ahal izateko.

2) De la misma manera, eliminar la figura del voto ponderado del artículo 43 a efectos de adopción de dictámenes e informes.

3) 38.2 artikuluan aurreikusten den batzordeko partaideen ordezkatzea aldez aurretik idatziz jakinaraziz egitea, hau jatorrizko idazketan abordatu gabeko kontua delako.

3) Que las sustituciones de miembros de comisión previstas en el artículo 38.2, se efectúen previa comunicación por escrito, aspecto este que no está abordado en la redacción original.

4) U.A.O. euskaraz idatzia izan dadin.

4) Que el R.O.M. sea redactado en euskera.

Udaleko idazkariak gai horri buruzko ondoko txostena egin du 2008ko ekainaren 13an:

Emitido informe por el Secretario del Ayuntamiento en fecha de 13 de junio de 2008 que dice:

1) U.A.O. 1987ko urriaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan zen bi hizkuntzetan. Hots: euskaraz eta gaztelaniaz, horrelaxe jasota dago udal agiritegian.

1) El R.O.M. fue publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 28 de octubre de 1987 en ambos idiomas: euskera y castellano y así consta en los archivos municipales.

2) Udal batzordeetako partaide-titularren ordezkatzea udal talde politikoek izendatutako ordezkarien bidez egina izan behar du **eta ez** U.A.O.ren 38.2 artikuluak ontzat ematen duen egintza burutuen bidez.

2) Las sustituciones de los miembros titulares de las comisiones municipales han de ser efectuadas a través de los suplentes designados por los grupos políticos municipales y no por la vía de los hechos consumados tal como admite el artículo 38.2 del R.O.M.

3) Jurisprudentziak behin eta berriro errefusatzen du haztatutako botoa baliatzea batzordeak eratzeko, eta ondoren, ebazpenak emateko ere. Horrela, Auzitegi Gorenak argudio xumea ematen du horretarako:

3) Reiterada jurisprudencia avala el rechazo del llamado voto ponderado tanto para la válida constitución de la comisión como para la adopción de la resolución correspondiente. El argumento

informazio-batzordeen zereginak gainditu egiten du irizpena emateko eginkizuna, eta kontrolatu eta jarraipena egiteko organo bihurtzen dira. Zentzu horretan zinegotziaren botoa ordezkatzeak kaltetu egiten du berari dagokion estatutua, eta gainditu egiten du, halaber, udalak autoantolatzeko duen eskumena.

Idazkariak, txostenaren amaieran, zera adierazten du: UAO berri bat egin behar dela, izan ere, egun indarrean dagoena 1987koa da eta orduz gero izandako lege-aldaketek balio gabe bihurtu dute.

Gainera, Udal Araudi Organikoa onartzea eta aldatzea Udalbatzaren eskumena da, eta horretarako, gehiengo osoaren aldeko botoa beharrezkoa da.

Hori guztiagatik.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du begietara "vascuence" terminoak ematen dion kolpeaz gainera, idazkari jaunak eginiko txostenaren azken paragrafoa aitatu nahi du, zeren eta, bere taldea bat baitator 21 urte indarrean daramazkien araudia aldatzea komenigarria dela esaten duenean. Ildo horri jarraiki,

utilizado por el Tribunal Supremo es simple: la función de las comisiones desborda la de la mera adopción de dictámenes para constituirse en órganos de control y seguimiento. En este sentido la sustitución del concejal miembro por su voto perjudica su estatuto individual y asimismo desborda la competencia municipal de potestad de autoorganización.

Finaliza el Secretario su informe exponiendo la necesidad de redactar un nuevo ROM, ya que el actual data de 1987 y las modificaciones legales habidas desde esa fecha lo han hecho inservible.

La aprobación y modificación del Reglamento Orgánico Municipal es competencia del Pleno y requiere el voto favorable de la mayoría absoluta de sus miembros.

Por todo ello.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Presidencia y Régimen Interior

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que aparte del golpe a los ojos que supone el término "vascuence", quiere hacer referencia al último párrafo del informe del Sr. Secretario, que su Grupo no puede más que compartir, sobre la conveniencia de abordar la modificación de un Reglamento que

Gobernu Taldeari eskatzen dio Araudia aldatzeko bitartekoak ipintzeko.

* Murua jaunak (Orereetako EAE/ANV) adierazi duenez, eurek eginiko proposamenean zehaztapena egitea beharrezkoa ikusten dute. Izan ere, 5. puntuan, hizkuntzaren aipamena egin zutenean, gogorarazi nahi zuten dokumentua elebitan egon behar zuela, baina eurek erdara hutsez ikusi zutenez, euskarazko bertsioa falta zela ulertu zuten. Geroztik jakin zuten euskaraz ere bazegoela, eta beraz, horren inguruan ez dute ezer adierazteko, eta ondorioz, proposamenetik kenduko lukete. Bestalde, azalpen bat eman nahi dute -lehen ere noizbait adierazia- informazio-batzordeetako fundamentu falta, hain zuzen, hainbat partaidek ez dutelako bertan parte hartzen. Bozka artatuak, neurri batean, ez etortze horiek estaltzeko balio dezake, baina, euren ustez, konpromisoak bete behar direnez, partaideen presentzia bermatuko duen ekarpena egitea erabaki zuten. Pozten dira txostenak arrazoia eman dielako, eta horregatik, alde bozkatuko dute.

* Merino jaun alkateak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du UAO berrikusi behar dela eta idazkaria, horretarako gaitua dena, jada lanean

lleva en vigor 21 años. En ese sentido, pedir al Equipo de Gobierno que se pongan los medios y los mecanismos para que ese Reglamento sea modificado.

* Interviene en euskera el Sr. Murua (Orereetako EAE/ANV) manifestando que desean realizar una concreción en la propuesta efectuada por ellos, ya que en el punto 5°, cuando mencionaron el tema de la lengua, quisieron recordar que el documento tenía que estar en bilingüe, pero como vieron que estaba solamente en castellano, pensaron que faltaba la versión redactada en euskara. Posteriormente supieron que también existía en esta lengua, y en consecuencia, como no tienen nada que decir al respecto, retirarían la misma de la propuesta. Por otra parte, desean realizar una aclaración respecto a la falta -en alguna otra ocasión han solido mencionar- de fundamento existente en las comisiones informativas debido a que diversos miembros de las mismas no participan en las reuniones. A su juicio, el voto ponderado, en cierta medida, puede valer, pero como los compromisos hay que cumplirlos, decidieron realizar la aportación que garantizase la presencia de dichos miembros. En definitiva, se congratulan porque el informe les da la razón, y por tal motivo, votarán a favor.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, procede hacer una revisión del ROM y el Secretario, que es quien está

ari da. Espero du hil batzuetan, lan hori ohiko udaleko lanarekin batera egin behar duelako, zirriborro bat egingo duela, osoko bilkurara eztabaidatzeko ekarriko dena. Era berean, esan nahi du Udal Lege berria atera zain zeudela, hain zuzen, horrek UAOren edukian eragina izango ote zuen jakiteko. Edonola ere, lehen esan duen moduan, idazkariak Udal Araudi Organiko berria egiteko eskaria egina dauka, halere, zuzenbidearen baitan eginiko erreklamazio bat zegoenez, orain bozkatuko duten proposamena eragin du, esan du.

capacitado para ello, ya está trabajando en el tema. Espera que en unos meses, puesto que ese trabajo lo tiene que compaginar con el trabajo municipal habitual, tenga elaborado un borrador que se traerá a discutir al Pleno. Decir también que se estaba un poco a la espera por si la nueva Ley Municipal influyera en el contenido del ROM. En todo caso, como ya ha dicho, el Secretario ya tiene el encargo de trabajar en la elaboración del nuevo Reglamento Orgánico Municipal, pero había una reclamación que tenía fundamento, que se ajustaba a derecho y es la que ha generado la propuesta que se va a someter a votación.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez, legezko partaideen gehiengo osoa osatuz,

El Pleno de la Corporación por unanimidad, que conforma la mayoría absoluta del número legal de sus miembros,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**1.** Hein batean onartzea Orereтako EAE-ANV talde politikoko zinegotziek eginiko erreklamazioa, eta ondorioz, ezabatzea 1987ko uztailaren 27an onartu eta urriaren 28ko GAOn argitara emandako Errenteriako Udalaren Araudi Organikoaren ondoko zatiak:

**1º.-** Estimar parcialmente la reclamación formulada por los concejales del grupo político Orereтako EAE/ANV y en su consecuencia eliminar las siguientes partes del Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Errentería de 27 de julio de 1987, B.O.G. de 28 de octubre:

- 38.2 artikulua: "*Bilera jakin baterako edozein zinegotzik bere taldeko beste inor ordezka dezake, batzordeko lehendakariari*

- Artículo 38.2: "*Cualquier Concejal podrá ser sustituido para una sesión determinada por cualquier otro de su*

*aldez aurretik berri emanik".*

- 34. artikulua: artikulu horretan boto haztatuekin batzordeko kideen baliokidetasun aipamen oro ondorengo eran idatzita geratuko litzateke:

*1. Informazio batzordeen buru Alkatea izango da edo bera ordezkatzen duen Zinegotzia.*

*2. Informazio batzordeak behar bezala eratzeko beharrezkoa izango da bertan egotea batzordekideen gehiengoa.*

*Quorumarik ez balitz osatuko, ordu bat beranduago, bigarren deialdian eratuko litzateke, orduan nahikoa izango litzatekeelarik batzordekideen herena bertan egotea, baina sekula ez hiru baino gutxiago.*

*3. Informazio batzordeek Udalbatzari proposatuko diote ordezkaturik egon behar duten edonolako Organo Kolegiatuko ordezkarien izendapena, beti ere bertan egindako hautaketaren ondoren.*

- 43. artikulua ondorengo eran idatzita geratuko litzateke:

*Batzordearen irizpenak eta txostenak bertan dauden gehiengoaren boto bidez emango dira eta batzordeburuak eta idazkariak sinatuko dituzte.*

*mismo Grupo, previa comunicación al Presidente de la Comisión."*

- Artículo 34: toda referencia de equivalencia de miembros de la comisión con votos ponderados contenida en dicho artículo y en consecuencia quedaría redactado de la siguiente manera:

*1.- Las Comisiones informativas serán presididas por el Alcalde o Concejal en quien delegue.*

*2.- Para la válida constitución de las Comisiones informativas se requiere que asistan la mayoría de sus miembros.*

*Si no existiera quórum, se constituirá en segunda convocatoria, una hora después de la señalada para la primera, siendo suficiente la tercera parte de sus miembros y en todo caso un número no inferior a tres.*

*3.- Las Comisiones Informativas propondrán al Pleno de la Corporación el nombramiento de representantes en toda clase de Organos Colegiados en que deba estar representada, tras la correspondiente elección efectuada en su seno.*

- Artículo 43: quedaría redactado de la siguiente manera:

*Los dictámenes e informes se adoptarán por mayoría de votos de miembros asistentes y serán firmadas por el que haya presidido la reunión y por el Secretario.*

*Irizpenarekin bat ez datorren batzordekideak bere aurkako botoa aktan jasota gera dadin eskatu ahal izango du.*

*El vocal que disienta del dictamen podrá pedir que conste en Acta su voto en contra.*

**2.** Atzera botatzea Araudia euskaraz idatzita egon dadin eginiko erreklamazioa.

**2º.-** Desestimar la parte de la reclamación referida a la redacción del Reglamento en vascuence.

**3.** Erabaki honek hasierako onespen izaera du, eta beraz, hogeita hamar egunez jendaurrean egongo da erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko behin horretarako iragarkia Iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara eman ondoren. Aldiz, inork ez badu erreklamazio edo iradokizunik egiten behin-betikotasunez onartutzat joko da eta indarrean sartuko da testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen denean.

**3º.-** El presente acuerdo tiene carácter de aprobación inicial y será sometido a información pública durante el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio en Tablón de Edictos y Boletín Oficial de Gipuzkoa para presentación de reclamaciones y sugerencias. En el caso de no producirse estas, la presente modificación se entenderá aprobada definitivamente y entrará en vigor una vez se haya publicado íntegramente su texto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo previsto en el artículo 65.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

**5. Proposamena: Añarbe onura publikoko mendian Jose Manuel Arbelaitz Mendiburu jaunarekin lurra trukatzea.**

**5. Propuesta: permuta de terrenos en el MUP Añarbe, con D. Jose Manuel Arbelaitz Mendiburu.**

2005eko abenduaren 12an, Ainhoa Palomo Zabala andreak, Jose Manuel Arbelaitz Mendiburu jaunaren izenean, idatzi bati sarrera eman zion, eta bertan, bere familiak Añarbe mendi publikoan duen eremu bat Udalaren beste batekin trukatzeko eskaintza egiten zuen.

Visto que con fecha 12 de diciembre de 2005, Ainhoa Palomo Zabala en representación de José Manuel Arbelaitz Mendiburu, presentó en este Ayuntamiento escrito mediante el cual ofrecía la permuta de dos terrenos propiedad de su familia y situados en sendos enclavados del monte de utilidad pública Añarbe.

Eskaturiko trukaketak Udalarentzat eta Añarbe mendi publikoarentzat interesgarria da, izan ere, modu horretan mendi barruan dagoen barruti bat kenduko litzateke, eta hori Udalaren mugak argitzeko ona izango litzateke.

Visto que la permuta solicitada presenta un elevado interés municipal y para el monte de utilidad pública Añarbe, en cuanto se facilita la eliminación de dos enclavados situados en su interior, lo cual redunda en la clarificación de los límites de la propiedad municipal.

Alkatetzak gai honi buruz 2006ko abenduaren 29an ebazpen bat eman zuen, hain zuzen Udalaren 8.732 m2-ko lurzati baten kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea abian jartzeko. Eremu hori Errenteriako Hesitxoko deituriko parajean dago, hots, Saroberreka aldean. Espedientea hil batez jendaurrean egon zen herritarrek nahi zituzten alegazioak egin ahal izateko.

Vista la Resolución de Alcaldía de fecha 29 de diciembre de 2006, por la que se acordaba incoar expediente de alteración de la calificación jurídica de un terreno municipal con una superficie de 8.732 m2 situado en el paraje de Esitxoko, área de Saroberreka (monte Añarbe) del término municipal de Errenteria y se sometía el expediente a información pública por plazo de un mes, para que se pudieran formular las alegaciones que se estimaran pertinentes.

Ezarritako epean inork ez du alegaziorik egin.

Resultando que en el plazo establecido no ha sido presentada alegación alguna.

Ingurumeneko udal teknikari Iñaki Azkaratek 2007ko abenduaren 13an gaiari buruzko txostena egin du.

Visto el informe emitido por el técnico de medio ambiente municipal, Iñaki Azkarate, de fecha 13 de diciembre de 2007.

Mendi eta Ingurumeneko ordezkariak 2008ko ekainaren 24an eginiko proposamena ikusi dute.

Vista la propuesta de la Comisión de Medio Ambiente y Montes de fecha 24 de junio de 2008.

Halaber, Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak eginiko txostena.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen

A propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior.

proposamenez.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1. Añarbe mendian Udalaren 8.732 m2-ko lurzati baten kalifikazio juridikoa aldatzea. Eremu hori Errenteriako Hesitxoko inguruan dago, hain zuzen Saroberreka deituriko aldean. Horretarako abian jarritako espedientean jasotzen dira deskribapena eta mugak, eta ondare gisa kalifikaturik geratuko da.

1º.- ALTERAR la calificación jurídica de una parcela de terreno municipal con una superficie de 8.732 m2, situada en el Monte de Utilidad Pública Añarbe, paraje de Esitxoko, área de Saroberreka del término municipal de Errenteria, cuya descripción y linderos se contienen en el expediente incoado, quedando calificada como bien patrimonial.

2. Eremu hori trukatzea, aldez aurretik matrikula kenduta, Jose Manuel Arbelaitz Mendiburu jaunaren beste batekin, Errenteriako Igantzi mendian dagoena (erregistro-finka: 1.081).

2º.- ENAJENAR la citada parcela de terreno, previa inmatriculación, mediante permuta con una parcela propiedad de D. José Manuel Arbelaitz Mendiburu, situada en el monte Igantzi de Errenteria (finca registral 1.081).

3. Udal lurzati horri baja ematea, besterendu ostean, Udal Inbentarioan, eta alta trukearen ondorioz lortutakoari, Añarbe mendi publikoan sartzeko.

3º.- DAR de baja la parcela municipal en el Inventario Municipal, una vez enajenada, y de alta la que se adquiere como bien de dominio público para su incorporación al M.U.P. Añarbe.

4. Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

4º.- NOTIFICAR el presente acuerdo a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

5. Alkatea ahalmentzea hartutako erabakiak gauzatzeko, hots, besterentzeko lehengo udal lurzatia eta berria ondare gisa jasotzeko. Horrez gain, egin beharreko eskriturak egin eta

5º.- FACULTAR expresamente al Sr. Alcalde-Presidente, a fin de que proceda a la ejecución de los acuerdos anteriormente adoptados, recibiendo formalmente la parcela municipal a enajenar como bien

akordio horiek gauzatzeko egin beharreko agiri publiko zein pribatu egiteko ahalmena izango du, baita edozein eskrituretan zuzenketak edo beharrezko argitzapenak egiteko.

patrimonial y otorgando las correspondientes escrituras públicas, así como en general, formalizando los documentos públicos y privados que se exijan para la adecuada ejecución de dichos acuerdos, así como cualesquiera escrituras de subsanación, rectificación o aclaración fuesen necesarias.

**6. Proposamena: Añarbe onura publikoko mendian Patxi Azpiazu Sarasola jaunarekin lurra trukatzea.**

**6. Propuesta: permuta de terrenos en el MUP Añarbe, con D. Patxi Azpiazu Sarasola.**

2005eko abenduaren 12an, Patxi Azpiazu Sarasola jaunak idatzi bati sarrera eman zion, eta bertan, berak Añarbe mendian duen eremu Udalaren beste batekin trukatzeko eskaintza egiten zuen.

Visto que con fecha 12 de diciembre de 2005, D. Patxi Azpiazu Sarasola, presentó en este Ayuntamiento escrito mediante el cual ofrecía la permuta de un terreno de su propiedad situado en un enclavado del monte de utilidad pública Añarbe.

Eskaturiko trukaketak Udalarentzat eta Añarbe mendi publikoarentzat interesgarria da, izan ere, modu horretan mendi barruan dagoen barruti bat kenduko litzateke, eta hori Udalaren mugak argitzeko ona izango litzateke.

Visto que la permuta solicitada presenta un elevado interés municipal y para el monte de utilidad pública Añarbe, en cuanto se facilita la eliminación de un enclavado situado en su interior, lo cual redunda en la clarificación de los límites de la propiedad municipal.

Alkatetzak gai honi buruz 2006ko abenduaren 29an ebazpen bat eman zuen, hain zuzen Udalaren 4.745 m2-ko lurzati baten kalifikazio juridikoa aldatzeko espedientea abian jartzeko. Eremu hori Errenteriako Minetako erreka deituriko parajean dago, hots, Saroberreka aldean. Espedientea hil batez jendaurrean egon zen

Vista la Resolución de Alcaldía de fecha 29 de diciembre de 2006, por la que se acordaba incoar expediente de alteración de la calificación jurídica de un terreno municipal con una superficie de 4.745 m2 situado en el paraje de Minetako erreka, área de Saroberreka (monte Añarbe) del término municipal de Errenteria y se sometía el

herritarrek nahi zituzten alegazioak egin ahal izateko.

expediente a información pública por plazo de un mes, para que se pudieran formular las alegaciones que se estimaran pertinentes.

Ezarritako epean inork ez du alegaziorik egin.

Resultando que en el plazo establecido no ha sido presentada alegación alguna.

Ingurumeneko udal teknikari Iñaki Azkaratek 2008ko ekainaren 27an gaiari buruzko txostena egin du.

Visto el informe emitido por el técnico de medio ambiente municipal, Iñaki Azkarate, de fecha 27 de junio de 2008.

Mendi eta Ingurumeneko ordezkariak eginiko proposamena ikusi dute.

Vista la propuesta del Delegado de Medio Ambiente y Montes.

Halaber, Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak eginiko txostena.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio.

Lehendakaritza eta Barne-antolaketako batzordearen proposamenez.

A propuesta de la Comisión de Presidencia y Régimen Interior

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I  D U**

**A C U E R D A**

1. Añarbe mendian Udalaren 4.745 m2-ko lurzati baten kalifikazio juridikoa aldatzea. Eremu hori Errenteriako Minetako erreka inguruan dago, hain zuzen Saroberreka deituriko aldean. Horretarako abian jarritako espedientean jasotzen dira deskribapena eta mugak, eta ondare gisa kalifikaturik geratuko da.

1º.- ALTERAR la calificación jurídica de una parcela de terreno municipal con una superficie de 4.745 m2, situada en el Monte de Utilidad Pública Añarbe, paraje de Minetako erreka, área de Saroberreka del término municipal de Errenteria, cuya descripción y linderos se contienen en el expediente incoado, quedando calificada como bien patrimonial.

2. Eremu hori trukatzea, aldez aurretik matrikula kenduta, Patxi Joseba Azpiazu Sarasola jaunaren beste batekin, Errenteriako Añarbe mendian dagoena (erregistro-finka: 22.471).

2º.- ENAJENAR la citada parcela de terreno, previa inmatriculación, mediante permuta con una parcela propiedad de D. Patxi Joseba Azpiazu Sarasola, situada en el monte Añarbe de Errenteria (finca registral 22.471).

3. Udal lurzati horri baja ematea, besterendu ostean, Udal Inbentarioan, eta alta trukearen ondorioz lortutakoari, Añarbe mendi publikoan sartzeko.

3º.- DAR de baja la parcela municipal en el Inventario Municipal, una vez enajenada, y de alta la que se adquiere como bien de dominio público para su incorporación al M.U.P. Añarbe.

4. Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari.

4º.- NOTIFICAR el presente acuerdo a la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

5. Alkatea ahalmentzea hartutako erabakiak gauzatzeko, hots, besterentzeko lehengo udal lurzatia eta berria ondare gisa jasotzeko. Horrez gain, egin beharreko eskriturak egin eta akordio horiek gauzatzeko egin beharreko agiri publiko zein pribatu egiteko ahalmena izango du, baita edozein eskrituretan zuzenketak edo beharrezko argitzapenak egin ahal izateko.

5º.- FACULTAR expresamente al Sr. Alcalde-Presidente, a fin de que proceda a la ejecución de los acuerdos anteriormente adoptados, recibiendo formalmente la parcela municipal a enajenar como bien patrimonial y otorgando las correspondientes escrituras públicas, así como en general, formalizando los documentos públicos y privados que se exijan para la adecuada ejecución de dichos acuerdos, así como cualesquiera escrituras de subsanación, rectificación o aclaración fuesen necesarias.

**7. 20 Area: Gabierrotako gizarte-ekipamenduko lurzatian –Jesusen Bihotza Adinduen Egoitza- HAPOren 4. barne-aldaketa. Hasierako onespena emateko proposamena.**

**7. 4ª Modificación Puntual del PGOU relativa a la parcela de equipamiento comunitario –Residencia de Ancianos Sagrado corazón- del Area 20: Gabierrota. Propuesta de aprobación inicial.**

**Aurrerakinak.-**

2008ko apirilaren 18an, *20 Area: Gabierrotako gizarte-ekipamenduko lurzatian -Jesusen Bihotza Adinduen Egoitza- HAPOren 4. barne-aldaketa* egiteko dokumentua aurkeztu zuten.

2008ko apirilaren 28an, udal bulego teknikoko zuzendariak gaiari buruzko txostena egin zuen.

2008ko maiatzaren 19an, Hirigintzako informazio-batzordean aldaketa hori zertan zetzan azaldu zuten.

2008ko maiatzean, barne-aldaketa hori buruzko herritarren parte-hartzea eman zen.

2008ko ekainaren 5ean, Hirigintza Antolamenduko Kontseilu Aholkulariak aldeko irizpena eman zuen *20 Area: Gabierrotako gizarte-ekipamenduko lurzatian -Jesusen Bihotza Adinduen Egoitza- HAPOren 4. barne-aldaketa* egiteko.

2008ko ekainaren 9an, udal bulego teknikoko zuzendari Enrique Pontek dokumentuari hasierako onespena ematearen aldeko txostena egin zuen.

2008ko ekainaren 26an, udal lege-aholkulari Vicente Castiellak gaiari buruzko txosten juridikoa egin zuen, Udaleko idazkari

**Antecedentes.-**

Con fecha 18 de abril de 2008, se presentó el documento de la *4ª Modificación Puntual del PGOU de la Villa de Errenteria relativa a la parcela de equipamiento comunitario. Residencia de Ancianos Sagrado Corazón en el Area 20: Gabierrota.*

El 28 de abril de 2008, el director de la oficina técnica municipal emite informe al respecto.

Con fecha 19 de mayo de 2008, se explicó la referida Modificación Puntual en la comisión informativa de urbanismo.

En mayo de 2008, se ha llevado a cabo el programa de participación ciudadana de la referida modificación puntual.

Con fecha 5 de junio de 2008, el Consejo Asesor de Planeamiento Urbanístico informó favorablemente la *4ª Modificación Puntual del PGOU de la Villa de Errenteria relativa a la parcela de equipamiento comunitario. Residencia de Ancianos Sagrado Corazón en el Area 20: Gabierrota.*

Con fecha 9 de junio de 2008, el director de la oficina técnica municipal Enrique Ponte, emite informe favorable a la aprobación inicial del documento.

Con fecha 26 de junio de 2008, el asesor jurídico municipal Vicente Castiella emite informe jurídico al respecto, conformado por el

Francisco Javier Lesca jaunak ontzat emana.

**Legeria.-**

2/2006 Legea, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa, antolaketari buruzko araudia; 5/1993 Legearen artikulu bakarra, uztailaren 16koa, Autonomi Elkarte Erkidegoko eta Lurralde Historikoko Foru Organoen Erakundeen arteko harreman-legea aldatzen duena; Udal Araudi Organikoaren 10.18. artikulua; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 22.2.c artikulua, Antolaketarako eta Funtzionamendurako Araudia, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko Lege Orokorra; eta 33/2003 Legearen 189. artikulua, azaroaren 3koa, Herri-administrazioetako Ondareena.

**Proposamena**

Hirigintza informazio-batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Murua jaunak (Orereetako EAE/ANV) adierazi du edukiaren aldetik ez dutela inolako arazorik proposamenari baietza emateko, baina kontua ondo aztertuta, bi gai azpimarratu nahi dituzte. Alde batetik, legeak ematen dien tresna ez dela erabilpen egokia iruditzen zaie, izan ere, tresna eta makinaria guztia eraikin batean ikusitako

Secretario del Ayuntamiento Francisco Javier Lesca.

**Legislación aplicable**.-

Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, Reglamento de Planeamiento; artículo único de la Ley 5/1993, de 16 de julio, de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos; artículo 10.18. del Reglamento Orgánico Municipal; artículo 22.2.c. de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, Reglamento de Organización y Funcionamiento, Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco; y artículo 189 de la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas.

**Propuesta**

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene en euskera el Sr. Murua (Orereetako EAE/ANV) manifestando que en cuanto al contenido no tienen ningún problema para dar el sí a la propuesta, pero una vez estudiado el tema en profundidad, desean subrayar dos temas. Por una parte, piensan que no se usa correctamente el instrumento que les otorga la Ley, puesto que

beharra konpontzeko jarri da martxan. Eurek ez dute beharra zalantzan ipintzen, erantzun behar zaiola ikusten dute, baina euren aburuz ez dute asmatu aukeratutako prozedurarekin. Euren iritziz, tresna hauekin haratago joan behar da eta ez da arinkerietan ibili behar. Eurek eraikin horretan sortutako beharra herrian egon daitezken beste behar eta eskariekin batera aztertzeko premia ikusten dute, behar bezalako eskaintza bat egiteko. Bestalde, espedienteko dokumentuak ikusita, prozesua erabat gardena izan dela ondorioztatzen da, baina bertan egon direnek gabeziak ikusteko parada izan dute. Plan Orokorrean aldaketak emateko garaian, 2006an onartutako Lurzoru Legeak Aholkularitza Kontseilu bidez herritarren parte hartzea bermatzen du, hauen parte hartzea ezinbestekoa hartuz. Arazo xume honek parte-hartzearen inguruan dauden gabeziak mahai gainean jarri du, eta horrek Legeak dituen helburuak lortzen direnerako hausnarketa sakona eskatzen du. Esandakoa kontuan hartuz, proposamenaren aurrean abstenituko dira prozedurarekin ez daudelako ados. Bukatzeko, aipatu hausnarketa egiteko borondatea badagoen jakitea gustatuko litzaieke.

todas las herramientas y la maquinaria se han puesto en marcha para solucionar una necesidad detectada en un edificio. Ellos no ponen en duda dicha necesidad, ven que hay que dar una respuesta a la misma, pero a su juicio no han acertado con el procedimiento elegido. Asimismo, a su entender con estos instrumentos hay que ir más allá y no hay que andar a la ligera. Ellos ven la necesidad de estudiar la necesidad generada en dicho edificio juntamente con otras necesidades y peticiones que puede haber en el municipio para luego realizar una oferta como es debida. Por otra, viendo los documentos del expediente, llegan a la conclusión de que el proceso ha sido totalmente transparente, pero los que han estado allí han tenido la oportunidad de ver las carencias. Así, a la hora de realizar las modificaciones en el Plan General, la Ley del Suelo aprobado en el 2006, a través del Consejo Asesor, garantiza la participación ciudadana, siendo dicha participación imprescindible. Este problema sencillo ha puesto encima de la mesa las carencias existentes en torno a la participación ciudadana, y eso requiere de una seria reflexión si se quiere conseguir los objetivos que marca la Ley. Teniendo en cuenta todo lo manifestado, se abstendrán a la hora de votar porque no están de acuerdo con el procedimiento seguido. Para concluir, les gustaría saber si existe la voluntad de realizar dicha reflexión.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du esanez uste duela Hirigintzako Aholkularitza Kontseiluari buruz ari dela. Haren arabera, duela oso denbora gutxi sorturiko batzordea da; bere garaian Udalbatzaren gehiengoak onarturikoa, eta beraz, herritarrek hirigintzako gaietan esku hartzeko indarrean dagoen baliabidea. Gaineratu duenez, hori Legeak dio eta hori da eztabaidatu zena; kolektibo ezberdinetako sentsibilitate ezberdinen ordezkari dezente etorri ziren, nahiz eta bateren batek –dena posible delako- pentsa dezakeen ez dagoela behar bezala ordezkatua, baina kontua da gai hau, beste asko bezala, noizean behin berrikusi eta kontuan hartzen dela. Berak ez daki bidezkoa den gaur gaia sakon aztertzea, baina esan dezake Lurzoru Legeak ezarritako elementu bat dela; luze eztabaidatu eta, jendaurrean egon ostean, azkenean, Udalbatzak onartu zuena. Bere iritziz, gerora aztertu eta berrikus daiteke, zuzendu edo edozein gauza egin dezakete, ikusiko da, esan du. Gaur, ordea, Adinekoen Egoitzari buruzko Plan Orokorraren laugarren aldaketa egiteko ekarri dute hona. Eta kontuan izanik EAEko ordezkariaren mintzaldia, puntua dagoen bezala bozkatuko dute.

